

Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria*

(The Didactic Sequence: the Mainstay and the minimally reliable Core of Didactic Action)

Larringan, Luis M^a; Idiazabal, Itziar¹

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Letren Fak. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Saila. Unibertsitateko ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz
¹ itziar.idiazabal@ehu.es

Jaso: 2012.06.21
BIBLID [ISSN: 1137-4446, eISSN: 2255-1069 (2012), 18; 13-44] Onartu: 2012.10.09

Lan honen helburua da Sekuentzia Didaktikoa (SD) lanabesaren pertinentzia didaktikoa, teoriakoa eta praktikoa, gogoratzea ekintza didaktikorako ardatz fidarri izan daitekeen heinean. Egileek Genebako Unibertsitatean landutako eredu hartzen dute jarraibide: testu pedagogia, hain zuzen. Hiru atal nabarmendu ahal dira: lehenbizikoan, didaktika jakintza arloaren autonomia premiazkoa dela esaten da. Bigarrenean, SDaren ezaugarriak gogoratzen dira. Hurrengoan SDaren lau etapak eta barne osaera azaltzen dira. Azkenik, sekuentzia didaktikoaren adibide bat jartzen da.

Giltza-Hitzak: Sekuentzi didaktikoa. Testu generoa. Hizkuntza proiektua. Aurretestua. Ondotestua.

El objetivo de este trabajo es recordar la pertinencia didáctica, teórica y práctica de la herramienta Secuencia Didáctica (SD), en la medida en que puede constituir un eje fiable para la acción didáctica. Los autores han tomado como ejemplo a seguir el modelo desarrollado en la Universidad de Ginebra, esto es, la pedagogía textual. Se pueden distinguir tres apartados: el primero subraya la necesaria autonomía del área de conocimiento de la didáctica; en el segundo se recuerdan las características de la SD; el tercero explica las cuatro etapas y la composición interna de la SD. Por último, se ofrece un ejemplo de secuencia didáctica.

Palabras Clave: Secuencia didáctica. Género textual. Proyecto lingüístico. Pretexto. Postexto.

L'objectif de ce travail est de rappeler la pertinence didactique, théorique et pratique de l'outil Séquence Didactique (SD), dans la mesure qu'elle peut constituer un axe fiable pour l'action didactique. Les auteurs ont pris comme référence le modèle développé à l'Université de Genève, c'est à dire, la pédagogie textuelle. On peut distinguer trois parties : le premier met l'accent sur la nécessaire autonomie de la discipline didactique ; le second rappelle les caractéristiques de la SD ; le troisième explique les quatre étapes et la composition interne de la SD. Avec, pour terminer, un exemple de séquence didactique.

Mots-Clés: Séquence didactique. Genre textuel. Projet linguistique. Prétexte. Post-texte.

* Lau hau MICINNeko (FFI2009-13956-C02-01) eta Eusko Jaurlaritzako IT-418-10 laguntzei esker egin ahal izan da.

1. AURKEZPEN HITZAK

Lantxo honek helburu bakarra du: Sekuentzia Didaktikoa (aurrerantzean SD) deitu lanabesaren deskripzioa egitea, eta bereziki, berorren pertinentzia zientifikoa azpimarratzea. Oinarri sendoen gainean eraikitako lanabesa dela erakutsi nahi da. Ez gatoz ezer berririk eskaintzera. Baina SDaren ezaugarriak zehaztu nahi genituzke, izen horrekin oso izaera ezberdineko ezkontzak izendatzen baitira. Ibilbideari dagokionez, sarreratxo honen ondoren, bi atal nagusi ditu lan honek. Sekuentzia Didaktikoa sintagma konposatua da eta bertan bi nozio biltzen dira: jenerikoa bata, “sekuentzia”; espezifikatzailea, bestea: “didaktikoa”. “Didaktikoa” berba espezifikatzailea izanik bereziki nabarmendu beharra dago. Horrela izanik, lehenengo atalean didaktika den jakintza-alorraz arituko gara, hemen mintzagai dugun objektua -SD-esparru horretakoa baita. Diziiplina horren ezaugarri zenbait ekarriko dugu, gaingiroki bada ere. Bigarren atalean, SDaren deskripzioa egingo da, beti ere gorago adierazitako xede-asmoen ildotik, eta eranskinean emango dugun SD-aren ezaugarriak eta datuak erabiliko ditugu deskripzio horren ilustrazio modura. Berau da atalik luzeena eta funtsezkoena. Hizkuntz irakasleak bere eguneroko jardunari eraginkortasunez erantzun ahal izateko jakingarri hauek ondo etorriko direla uste dugu. Bukaeran “Negu gorriak” deitu dugun SD adibidea gehitu dugu eranskin gisa. Jakina, esan bezala, adibide honek ez du “ikerketa” baliorik, adierazpide izatea baino, erakusgarri enpirikoa, hain zuzen.

2. DIDAKTIKA¹: DIZIPLINA BATEN AUZI-ARAZOAK

Didaktikak, bere esparrua eta izaera finkatzeko lanak iza(te)n ditu, ezagumendu-esparru askotako ekarpenak batzen baititu; gure kasuan (hizkuntzaren didaktikan) bereziki, hizkuntzalaritzakoak, psikologiakoak, pedagogiakoak edota soziolinguistikakoak. Didaktikak beste hainbat jakintzari ere dei egiten die. Horregatik edo, zenbait kasutan jakintza mugakide batzuk didaktikaren alorrera sartu dira, gehiegizko erreparorik gabe sartu ere, hizkuntzalaritzaren kasuan bereziki. Aplikazionismoa izan da nagusi: didaktika hizkuntzalaritza aplikatua bilakatu da askotan. Kolonizatua izan da. Hala gertatu da diakronian zein sinkronian. Ez dago lekuko bila urrutira joan beharrik: irakaskuntzaren merkatua bera izan daiteke esandakoaren lekuko argia: hizkuntzalariak, filologoak,... agertzen dira irakasle. Ondorio gisa oker nagusi bat dakar jokabide horrek: hizkuntza erabiltzen erakutsi beharrean, hizkuntzaren ezaugarri batzuk erakustera mugatzen da didaktika sarriro. Bestalde, didaktika teknika izan da zientzia bainoago. Bere burua babeste aldera edo, sarritan teknizismora jo izan du. Genevako Unibertsitatean sendo ekin zaio, oro har, didaktika diziiplina gisa eraikitzeari, eta bereziki hizkuntz(ar)en didaktika aztertzeari. Ekimen horren ondorioetarik da SDa lanabesaren konfigurazioa. Horrekin zera esan gura da: SDa propietate teoriko eta epistemologikoz hornitua datorrela, beti ere nolabaiteko ziurtasuna izan dezan erabiltzaileak.

1. Didaktikaren barruan “murritzapena” egin dugu, hizkuntzaren didaktikara mugatu baiera.

Didaktika hezkuntza esku-hartzearen gaineko diziplina da, eta esparru zientifiko autonomia gura du izan, Heziketa Zientzien barruan kokatzen ahal delarik, Hizkuntza Zientziak eta Psikologia erreferentzia diziplinen bidegurutzatzean, hain zuzen (Bronckart, 1997, 2002; Camps, 1993; Camps & Dolz, 1996; Bronckart & Plazaola-Giger, 1998). Didaktikaren eta hizkuntzalaritzaren arteko erlazioak bilakaera gorabeheratsua izan dute historian zehar, 50 eta 60 hamarkadetan, baina gerora dibertsifikatu eta konplikatu egin dira. Galison eta Coste autoreek bi belaunaldi bereizten dituzte. Lehen belaunaldian harreman zuzenak daude. Gramatikak aholkuak eman eta didaktikak aplikatu egiten ditu. Bigarren belaunaldirako berriz, hizkuntzalaritza teorikoak bi posizio jartzen dizkio eskuragarri didaktikari; Batetik, hizkuntzalaritzak berak sortu dituen erregelak didaktika ekintzen norabidearen gidari bihurtzea; bestetik, hizkuntza gogoeta teorikoaren ardatza den heinean didaktika ere gogoeta teorikora bideratzea. Hona hemen euren hitzak:

La primera generación se caracteriza por una concepción inmediata de las relaciones. La gramática da consejos y la didáctica las aplica. Para la segunda generación la lingüística teórica suministra dos posiciones a la didáctica; esta última hace referencia para orientar sus actividades según las reglas que ella misma establece. La didáctica está en condiciones de evaluar la pertinencia de sus modelos en función de su propia práctica. Sea lo que fuere, la lengua como objeto de aprendizaje (o como constituyente de una comunicación difícil) no se deja fácilmente o enteramente reducir a la lengua como objeto de reflexión teórica (como constituyente de una comunicación sin problemas). Los dominios que resisten a tales tentativas de reducción forman parte de los temas más específicos e interesantes de la lingüística aplicada, disciplina cuyo rol a este respecto es recuperar algunas de las variaciones neutralizadas por los esquemas teóricos. (1976: 150)

Hizkuntzaren didaktikaren zenbait berezitasun aipatzearen, esan behar da didaktikaren kezka hizkuntza nola eskuratzen den aztertzea dela, hizkuntzalaritzarena, berriz, hizkuntza edo mintzaera den hori. Batak eta besteak bestelako helburuak dituzte. Hizkuntzalaritzaren ereduak, baliabide kontzeptualak, erabili daitezke didaktikan baina beti ere bere helburuetara egokitzen diren heinean. Didaktikak, nolana ere, hizkuntzen irakaskuntzaren izaera eta helburuak hartzen ditu kontuan, eta beraz, bere eredu teoriko propioak behar ditu eduki. Didaktikaren berezitasuna eta zailtasuna giza zientzien eta hizkuntza zientzien bidegurutzean kokatetik letorke. Didaktika, ikus daitekeenez, diziplina heterogenoa da, eta -hau ere esan behar-autonomia ahuleko jakintzagaia. Didaktika diziplina gisa eraiki beharraren aldarrikapenak, eta hizkuntzalaritzaren nahiz beste erreferentziazko zientzien arteko harremanen auzia garbi ageri dira Bronckart-en (1993) liburuan. Eta Pello Esnalek (2001) oso ondo jaso zituen gogoeta horiek. Bertatik hartuko ditugu bataren eta bestearenak² esan gabe doa geure egiten ditugula bi-biak.

2. Irakurketa erraztearen lekukotasun zehatzak Bronckartenak izango dira Esnalek ematen dituen moduan jasoak. Eta Esnalen iruzkinak gureekin nahastuko ditugu haria hobeto jarraitzeko, baina ez gara esaldiz esaldi berea edo gurea den esaten ariko. Aurrez aitortzen dugu Esnala dela meritua Bronckarten ideia hauek euskaraz plazaratzeagatik eta guk haren lana berreskuratzea erabakia hartu dugu.

Didaktikaren lehentasuna da lehenengo oinarritzko ideia, liburuaren sarreran bertan aurkitzen duguna: “Egitan, kontraesan sakonen eremua da hizkuntzen irakaskuntza. Baina kontraesan horiek pedagogikoak dira lehenik-lehen. Eta ezin izango dira gaingitu, ez bada erabaki pedagogikoak eta politikoak hartuz. Argitasun pedagogikoa behar da lehenik eta hizkuntzaren zientzien ekarpenak ondoren.” (Bronckart, 1993: 9-10) Hari beretik, hizkuntz zientzien eta irakaslegoaren formazioaren artean gertatzen den gatazka ere jasotzen du Esnalek Bronckart-engandik: “Hizkuntz teorien martxa azkarrak ilusio huts bihurtu du irakaslegoaren etengabeko formazioa. Baina funtsezko arazoa ez da hori. Izan ere, helburu pedagogikoek agindu behar dute zer hartu hizkuntzalaritzatik.” (o.c.:18) Jardun pedagogikoaren lehentasuna aurretik. Baina are gehiago. Ez da, soilik, jardun hori erreferentziazko zientzien (hizkuntzalaritza, psikologia eta soziologiaren) aurretik ipini nahi izatea. Izan ere, autonomo bihurtu nahi da didaktika.

Une honetan [1985ean], korrante bat ari da sortzen. *Didaktika* hitzari eduki berria emanez (orain arte, teknikei eta ezagutzak transmititzeko tresnei aplikatzen zitzairen soilik), didaktika egin nahi du, aldi berean, psikologiaren eta hizkuntzalaritzaren ekarrien jakitun eta bi zientzia horiekiko autonomo. (o.c.: 18).

Hizkuntzaren zientziak eta hizkuntzaren irakaskuntzaren arteko erronka ekarriko du Esnalek, Bronckart-en abiapuntua jarraituz:

Hizkuntzaren zientziak eta hizkuntzaren irakaskuntza, beraz, erronka-egoeran daude. Baina bi aldeetako da erronka. Pedagogoei asko daukate teorikoetatik ikasteko; zientzialarien egitekoa da, berriz, egokiak diren egintza pedagogikoak deskribatu eta teorizatzea. (o.c.: 10).

Esnalek dioen bezala, elkarren beharrean gaude irakasleak eta hizkuntzaren zientzialariak. Batzuek eta besteek daukagu hitza, eta ezin dugu inor baztertu edo ahaztu. Berrito ere, jarrera eta ikuspegi didaktikoa. Baina irakaslearena da lehenengo hitza: egintza pedagogiko egokiak zein diren esatea. Ondoren dator zientzialarien egitekoa: egokiak diren egintza pedagogiko horiek deskribatu eta teorizatzea. Eta ez alderantziz. Liburuaren amaieran aplikazionismo joera kritikatu du Bronckart-ek:

Guk kritikatzeko dugu jokabidea da disziplina zientifikoetatik praktika pedagogikoetara doana; hau da, haiek hauetara *aplikatzea*, esan ohi den bezala. Azken hamarkadetan, bi eratan mamitu da jokabide hori: hizkuntzen psikopedagogian eta hizkuntzalaritza aplikatuan. (o.c. : 127).

Eta aurrerago, berriro azpimarratuko du non egon behar duen lehentasuna:

Hizkuntzalaritza aplikatua eta psikopedagogia kritikatu ditugu, hain zuzen, horiek hizkuntzalaritza eta psikologia direlako lehen-lehenik eta batez ere. Hizkuntzaren didaktikak, ordea, alderantziz jokatu nahi du, berriro pedagogiari emanez lehentasuna. (o.c.: 133).

Eta Esnalen iruzkina ere egokia iruditzen zaigu:

Irakasle profesionalak behar ditugu. Irakaslea ez baita hizkuntzalaritzaren aplikatzaile, edo psikologiaren aplikatzaile edo soziologiaren aplikatzaile. Irakas-

lea horixe baita: irakasle. Eta irakasle izaki, didaktika hartuko du abiapuntu eta helburu; gainerako zientzien ekarriei ateak itxi gabe, jakina. (2001:36).

SDa ahalegin honen barruan kokatu behar da, metodologia mailako ahalegin gisa: zer, zein helburu, zertako, nola... faktoreak kontuan hartuz geroko jarduera gisa, hain zuzen. Eta hona beste ohar interesgarri bat: egun, didaktikari objektu bikoitza errepara dakioke: a) didaktika esku-hartze diziplina gisa agertzen ahal zaigu, edo/eta b) ikerketa esparru gisa. Horrek ere kontua konplexuago egiten du harremanak aztertzerakoan.

3. SD-AREN DESKRIPZIOA ETA AZALPENA

Hasteko, kontzeptuaren lehen zedarritze labur bat egingo dugu. SDa esku-hartze pedagogikoaren antolamenduaren ardatza da. Dakigunez, esku-hartze pedagogikoa praktika konplexua da, eta ezinezkoa da koordenada sinpleekin definitzea zeren faktore anitz biltzen baititu, besteak beste ideiak, balioak, ohi-tura pedagogikoak, eragile soziologikoak, eta abar. Halatan, ikasgelak leku oso korapilotsuak dira eta irakasleak unean-unean hartu behar dituzte erabakiak. Esku-hartze hori konkretatzera dator SDa. Hona, behin-behineko zedarritze bat: SDa jarduera multzo bat da, segidan antolatua, egituratua eta artikulatua, beti ere helburu pedagogiko jakin batzuk lortze aldera bideratutako lanabesa; hasiera eta bukaera zehatzak izan ohi ditu, eta bi mutur horien berri izango dute parte-hartzaileek, hots, hala ikasleak, nola irakasleak. Ibilbideari dagokionez, lau etapa desberdin ditu, eta horietako bakoitza hainbat jarduera diferentziazatuta dago. Etapa bakoitzari nolabaiteko egokitasuna eta autonomia propioak zor zaizkio, zeini berea. SDak, bere osotasunean, lan-saio ugari eta desberdinak zehaztu eta elkarri era sistematikoan lotzeko modua eskaintzen du. SDan barrena, eginkizunen, jardueren, ariketen eta abarren pertinenzia ebaluatu ahal da une oro. Ahalegin honen barruan ulertu behar da SDa: besteak beste, beronek ematen dio ahalegin didaktikoari zutabe zientifiko minimoki fidagarrietariko bat. Fida-garria esaterakoan ez da esan nahi irakaskuntzan gehiago edo gutxiago zehaztutako asmoak eta suposizio intuitibo asko, ez direla arrakastatsuak izan. Esan gura duguna da, hizkuntz irakasleak eskura duela subjektibitatea gainditzeko eta bide esplizituak egiteko lanabesa bat.

3.1. SDaren ezaugarriak eta giltzarriak

Hona hemen ezaugarri orokorrak gaingiroki zerrendatuak:

- Ikasgelako eta ikasgelaren proiektua da; esan nahi da, protagonisten artean zerbait konpartitua dela;
- Irakasleak, proiektuari eutsiz, hizkuntz jarduera jakin bat, alegia testu-genero bat ekoizteko eskatuko die ikasleei;
- Hasierako lan hori erreala zein fikziozkoa izan daiteke;
- Jarduera bere osotasunean zein atalka burutu ahal da;

- Lanaren ardatza ikasleen testua edo ekoizpena da, berori baita benetako elementu erregulatzailea;
- Hasierako egoera funtsezkoa da: hala motibazio gisa, nola azken produkzioarako elementu gidatzaile den aldetik.

Esan berri dugunari funtsezko hiru baldintza -tasun-erantsi beharra dago, baldin eta testu-generoa benetako ikas/irakasgarri (irakas-objektu) izan dadin (Dolz & Gagnon, 2010:512):

- a) Lejitimazioa; berba horrekin esan nahi da, alde batetik, badela arrazoirik testu-genero jakin hori hautatzeko, eta bigarrenik -eta garrantzitsuagoa dena- testuak baduela izaera generikorik.
- b) Pertinentzia: testu-generoa jorratzeko proposatuko diren ariketa eta jarduerak generoari zor zaizkionak behar dute izan; jakina, testua aurrera eramateko beharko diren testu eta hizkuntz forma espezifikoak zeintzuk diren aldezturik jakin beharko ditu irakasleak. Prestatutako jarduerak eta ekintzak estuki lotuak behar dute generoaren osaerarekin.
- c) SDaren atalak elkarrekiko solidarioak izan behar dute, elkarrekin osotasun bat eginez. Beste hitzez, ariketak elkarrekiko atxikirik emango direla.

SDaren osaerari dagokionez, hiru zutabe seinala daitezke: i) proiektua edo egitasmoa; ii) hizkuntz ekintza; iii) xede-asmoak edo helburuak. Ondoren aurkeztuko dugu beteago zutabe bakoitza.

i) Proiektua

SDa hizkuntz ekintza bat burutzeko bideratutako tresna bitartekari metodologikoa da. Komunikazio ekintza jakina du helburu, beraz. Ikasgelan onartutako proiektua da, ahal bada esplizituki, baina, gutxienez, inplizituki. Hasteko, hizkuntz ekoizpena egiteko erabakia hartzen da: baimen bat lortu, egunkarian agertuko den iritzi artikulua bat idatzi, gurasoei begira ipuin bilduma bat egin, bidaia, jaialdi, edozein jardueraren kronika, memoria edo balantzea egin, irrati, telebista edo aurrez aurreko eztabaida edo debate batean parte hartu, asmatua, ikasia edo egiatan gertatutako istorio bat ahoz edo idatziz kontatzeko erabakia,... Hala, hizkuntz ekintza jakin baten gainean egiten da arreta, eta hura hartzen da ikas/irakaskuntz objektutzat. Hizkuntz ekintza ezinbestean testu bidez datorkigu, eta genero bateko edo besteko dugu. Zentzu honetan, testu-generoa lanabes edo tresna didaktikoa bilakatzen da hizkuntzaren ikas/irakaskuntzarako (Dolz & Schneuwly, 1998). Testu-generoak, baina, ugariak dira. Hurrengo galdera, beraz, bidezkoa da: zein hizkuntz ekintza eta zein testu-genero hautatuko da ikas/irakaskuntz objektu gisa? Esan behar da, testu-generoaren hautatzea ez dela kapritxo hutsa, baizik eta benetako bitartekaria, estuki lotuta baitago egitasmoarekin. Hautatu testuak, zein ere den, ekintza linguistikoaren gainean eragingo du, berau gidatuz eta norabidetuz, hala edukiak hautatzerakoan, nola komunikazio-modalitatea hautatzerakoan: egoerako faktoreak, testu-mailak, hizkuntz unitateak... zeharbidez baldintzatuz. Generoa kontutan duen eredu didaktikoa lantzeak zera eskatzen du: testu-generoaren ezaugarriak aldezturik zehaztea edo eskuartean izatea, hau da, ikas/irakatsiko diren edukiak finkatzea,

beti ere hurrengo jarduerak eta ikas-sekuentziak bideratzeko eran (Dolz & Schneuwly, 1998). Behin hizkuntz ekintza eta testu-generoa aukeratuz gero, hautatu den mintzajardun horixe izango da SDaren objektua eta helmuga.

ii) Hizkuntz ekintza

Esan bezala, guk hemen proposatzen dugun SDa hizkuntz ekintzan oinarritutako marko didaktikoan kokatzen da.

Ekintza kontzeptua argitzeko, prozesu sozialean integratutako ekintzen sistemara jo beharra dago; hau da, historian zehar eraikitako ekintzen multzora. *Hizkuntza-ekintzak* bere horretan, hizkuntzaren psikologiaren objektu dira. Hizkuntz ekintzok, era berean, *testu-itxura* hartzen dute, eta interakzio sozialeko parametroak kontutan hartuz defini daitezke, honako parametro hauen arabera, hain zuzen: toki soziala, zertarakoa, eta enuntziatzailearen eta hartzailearen arteko harremanen nolakotasuna. (Bronckart, 1997; Schneuwly, 1991).

Hala ekintzak, nola testuak, dakigunez, oso ugariak izan daitezke. Horregatik, SDa osatzerakoan ekintza jakinak eta zehatzak hautatu behar dira, eta haien izaera argitu eta deskripzioak egin; lan horretarako testu-tipologietara jo ahal da. Jokabide honek bi onura metodologiko ditu berarekin: batetik, testuen hautatzean intuizioari leku estua uzten zaio; bestetik, testu-generoei buruzko aurreiritziak uxatu ahal dira. Deskripzio horietara jotzeak ekarriko digu beste mesederik ere: erreferentzia bilaka daitezke ikas/irakasgaiak hautatzeko, irizpide-zerrendak eratzeke, eta jarduerak eta ariketak antolatzeke orduan.

iii) Helburuak

Helburuen zehaztea eta adieraztea SDaren eginkizunik garrantzitsuenetarikoa da:

- Xede-asmoak modu esplizituan jarri behar dira;
- Beti ere helburu jakinak eta gutxi batzuk jarriko dira bakoitzean, ez baitago denari batera egiterik;
- Helburuen berri emango zaie ikasleei, eta horrela esplizitazioa eta kudeatzea elkarlotu ahalko dira;
- Aprestuzien kontrola erdibana eta lankidetzan eratu ahalko da;
- Xede-asmoak edo helburuak zehazte aldera, ikasleen hasierako testuetara jo ahal da, eta bertatik atera egoerari buruzko informazio egokia (gaitasunak, eskasiak, alde garatuak...).

SDan bi dimentsiotako jarduerak eta eginkizunak bereizi behar dira:

Lehenengo dimentsioa, hizkuntzaren erabilerari (produkzioari) begira dauden jarduerak osatzen dute, komunikazioa eta estrukturalazioa (sistematizazioak) helburu dituztenak. Jakina, komunikazioa helburu dutenak, ariketa edo jarduera “askeagoak” dira, eta komunikatzera bideratuak ageri dira. Jarduera edo ariketa

egituratuak edo kontrolpekoak, aldiz, hizkuntz formei eta testu-generoari zor zaizkionak dira. Azkenengo hauek, nola esateari berari zeri baino garrantzia handiagoa ematen die. Bestela esanda, batetik, komunikatzeko erabilitako ekoizpenak ditugu, eta bestetik, arauen eta erregelen kontzientzia hartzeko jarduerak. Bi alderdi hauek ongi konbinatzea komeni da.

Bigarren dimentsioa, ibilbideari dagokio, hots, prozesuari: hemen zerbait konplexutik sinpleagorako bidea egiteko jarduerak hartuko dira kontuan, eta ondoren zerbait sinpletik zerbait konplexuagora joatekoak. Edota errazenetik zailagoa ordenatutako jarduerak, edota ezagunetik ez-ezagunerakoak, beti ere ikaslearen maila linguistikoa kontutan hartuz. Gatozen ondoren SDaren barne egitura edo hezurdura azaltzera.

4. SEKUENTZIAREN HEZURDURA OROKORRA

Lau etapatan banatzen da SDaren oinarritzko zikloa:

1. Egoeraz jabetzeko etapa (EJ) Proiektuaren aurkezpena eta onartzea. Tes-tuinguru jakin batean kokatua eta ustez ikasleei ere axola zaiena.
2. Hasierako ekoizpen etapa (HE). Aurretetua
3. Tailerren eta moduluen etapa (TT/MM). Edukiari eta formari buruzko infor-mazioa eskaintzen da, hau da, edukien eta formen lanketa egiten da.
4. Bukaerako ekoizpena, errebisioa, eta ebaluazio etapa (BEE)

Aipatu ditugun etapa horiek banan-banan zehaztuko ditugu lehenbizi, eta ondoren, sekuentzia didaktiko bat ekarriko dugu esandakoa ilustratzeko. “*Negu gorriak*” du izenburua, eta iritzi-artikulu baten jorratzea egiten da bertan. Lehenengo eranskinean ikus daitekeen SD hau orain hamabost bat urte asmatu eta frogatu genuen 15-16 urteko D ereduko ikasgela batean.

4.1. Proiektuaren aurkezpena. Egoeraz jabetze etapa (EJ)

Girotze fasea ere dei genezake, eta proiektua (egitasmoa) zehaztea eta hura aintzat hartzea du funtzio nagusia. Baita ikasleak (parte-hartzaileak) alde jartzea eta adoretzea ere. Proiektua berba bi modutan ulertu ahal da: egitasmo orokor gisa (era-kundearen, ikastetxearen egitaraua...), batetik; bestetik, zerbait hurbileko gisa, hau da, ikasgela barneko proiektu gisa. Pentsatu behar da ikasgelako proiektu hau ikas-leen interesekoa dela, eta beren probetxurako izango dela: gizartean parte hartzeko, iritziak trukatzeko, azterketak gainditzeko, arrakasta izateko... Izan ere, ikas-kuntzarik mamituko bada, lehenengo eta oinarritzko baldintza ikasi nahi izatea da, proiektuaren barruan sartzeko prest egotea. Proiektua esanguratsua izango da ikas-leentzat. Irakasleak “hitzarmen didaktikoa” negoziatuko du ikasleekin.

Horretara bideratutako zenbait eginkizun asmatu eta martxan jarri beharko dira. Zeintzuk? Lan hau irakasleen eskuetan geratzen da. Edozein kasutan, irakasleak zenbait jardura eta ekinbide proposatu ahal ditu, ikasleak hizkuntza askatasunez erabiltzera bultzatzen dituztenak.

Ikus dezagun orain nola lortzen den etapa hau *Negu Gorriak* SDan. Proiektuari jarraiki, argudiozko testuen txanda zen. Argudiozko testuak etengabeko presentzia du gizakion eguneroko bizimoduan gertatzen diren komunikazio desberdinetan. Halatan, irakasleak badu testu-genero honi ekiteko arrazoirik. Girotze aldera, garai hartako musika talde baten *-Negu Gorriak* izenekoarena- banaketa hartu zen hizpide; esan behar da, taldea nahiko entzutetsua zela, ezaguna eta arrakasta handikoa; egia da baita ere, desagitearen zurrumurrua zabal zebilela. Gauzak horrela, *“Entzun”* musika aldizkarian iritzi-testu bat agertu zen, aipatu musika taldeari buruzkoa, iruzkin kritiko eta guzti. Egia esango bada, fikziozkoa zen testua, asma-tua zelako, baina benetakotzat hartu zuten ikasleek. (Ikus eranskinaren 1go orrialdea). Testu horretan esaten denak emango zuen eztabaidarako berbabidea. Gisa horretara erraz lortu zuen ikasleak akuilatzea eta adoretzea.

4.2. Hasierako ekoizpena (HE), aurretestua ere deitzen zaio

Proiektua erabaki ostean, bertan hautatutako testu-generoaren, ahozko zein idatzikoaren, ekoizpena egingo da. Ekoizpen honi aurretestua deritzo, eta informazio iturri bilakatuko da, zenbait informazioren harrobitxo, hain zuzen. Izan ere, aurretestuak aztertuz datu baliotsuak lortuko ditu irakasleak baleko ekoizpenaren, edo ekoizpen onaren, edo hobearen gakoak non dauden finkatzeko. Eginkizun honen helburua irakaslea gidatzea da. Zehatz dezagun gehiago zer funtzio duen aurretestuak. Besteak beste:

- I(r)a(kasgaien harrobi bilakatzea, hots, informazio iturri ziurra izatea; ikasleak dakienaren eta ez dakienaren berri emango digu;
- Zenbait irizpide finkatzeko lagungarri izatea;
- Premiak, lehenetasunak erabakitzea erraztuko du;

Erabaki horiek finkatzeko testuaren izaera generikoa hartuko da kontuan. Sekuentzia Didaktikoa taxuzko lana gertatuko bada, erreferentziazko egoerak estu loturik egon behar du proposatutako ekintzarekin, eta, bestetik, egoera hori aldatu edo hobetzeko saiakeraren premia ere antzeman behar da. Ezer idatzi/ekoiztu aurretik, talde osoarekin aurre-ezagutzak mahai-gainera ekarri ahal dira. Seguruenik ez dago hutsetik hasi beharrik, izango baitute eskarmentu txikiren bat edo beste hautatu testuen gainean. Ez zaie guztiz arrotz egingo auke-ratutako gertakaria zein testu-genero den esateko. Testu horren bitartez –hots, hura aztertuz- irakasleak aukera izango du ikasleen gaitasunak atzemateko eta baloratzeko, oztopo eta eskasia nagusienak (premiatzkoenak) identifikatzeko, hala generoari buruzkoak nahiz hizkuntz unitateei dagozkienak. Lan horrek helburu partzialak hurbilagotik konkretatzen lagunduko dio irakasleari. Hizkuntz gertakarien funtzionamendua aztertu beharko da, baita gramatika arauena ere, edota hizkuntz erabilerarena. Fase honetan jasotako ezagutzek ondorengo faseko eginkizunak eta jarduerak egiten lagunduko diote ikasleari. Oro har, egoeraren diagnosa egitea du funtzio nagusia HE-k. Lehen balorazio bat egitea, alegia. Lehen ekoizpen hau gorde egingo da azken produkzioarekin alderatzeko.

Garrantzi handiko kontu bat: kontsignaren elaborazioari buruzkoa. Hasierako ekoizpena kontsigna baten bidez eginarazten da eta beti ez da erraza ongi for-

mulatzea. Eta HE asko baldintza lezake. Ohar bedi kontsigna ulertzeko gaitasuna “gaitasun metodologiko” bat dela. Eginkizuna ulertzeko eta zehazteko bideratutako adimen-operazioa, hain zuzen. Alderdi honetatik, espazio sozio-diskurtiboa bilakatzen da (Zakhartchouk 1999: 27). Itzul gaitezen gure adibidera Behin ikasleak akuilatu eta adoretu ondoren, irakasleak erantzun gisa testu baten idaztea proposatu zien ikasleei, bakoitzak Negu Gorriak taldeari buruzko iritzia eta ikuspuntua azalduz, beti ere. E. Merkaderren testua abiapuntutzat kontuan hartuz. Kontsignan formulatzen da eginkizuna. Ondoren, ekoizpen horiek guztiak aztertu zituen irakasleak. Ekoizpen guztiak maila berekoak izan ez baziren ere, hona ekarriko ditugun biak nahikoa adierazgarriak dira ikasle idazleek dakitena eta ez dakitena ikusteko, zer balio, akats edo gabezia duten azalartzeko, testu-generoari dagokionez, jakina³. Eta hona berehala antzeman daitekeen akatsa: gisa honetan testu hauen hasieran, derrigorrezkoa da irakurle zabarlari idazlearen abiapuntua non dagoen adieraztea. Esan nahi da, beste batek idatzi duen gutuna/testua baldin bada idatziko denaren hizpide, hura aurkeztu egin behar dela edozein irakurlek gutuna ulertuko badu. Aurkezpen hori sarriro ikasleek ahaztu egiten dute, testuera hauek landu ez badituzte bereziki, aurretestu adibide hauetan ikusten den bezala. Ikasleak horrela ematen diote hasiera gutunari agurraren ondoren:

A1 “Egia esanda niri etzait NGk egiten duen musika gustatzen”

B1 “Hasteko zerbait esan nahi nuke. Nik ez dut NEGU GORRIAK taldea entzuten”

Gutun hori aldizkarian agertzeko dela ez dute behar bezala irudikatu egileek; balizko irakurleak ere berak irakurri berri duen gutuna irakurri balu bezala jotzen dute ikasle hauek. Ikasleak berak dakitena irakurlearengan ere jakintzat ematen du, eta jakina, gutuna ulertezina gertatzen da. Irakaslea ohartu zen ohitura edo jokabide nahiko arrunta zela, eta zuzendu ezean, gerora ere arazo izango zela agian. Eta hori izan zen SDaren abiapuntua.

4.3. Tailerrak edota moduluak (TT /MM)

Tailerrak eskolarako jarduera edo ariketa moduan osatuak izaten dira. Tailerren zeregina ikasleei ezagutzen ez dituzten edota falta zaizkien abileziak eskuratzeko da. Ekoiztu behar den testuaren osagaien bat hobetzeko edota ikasleen aurretestuan antzeman den gabeziaren bati erantzuteko pentsatua dago tailer bakoitza. Lehen ekoizpenean agertu diren zailtasunak gainditzera bideratuak daude eta hizkuntz ekintzaren lau mailak hartzen dira kontuan: ekoizpen egocera, edukiak, testuaren egitura eta testuaren kohesio eta konexioa ziurtatzeko behar diren hizkuntz unitateen maila. (Dolz eta Schneuwly, 1998) Tailerrak “hizkuntza sortu eta garatzeko” antolatutako uneak dira. Espazio komuna sortzeko eta eduki espezifikoak lantzeko saioak dira, alegia, helburu orokorra lantzeko jarduerak eta eginkizunak. Kontua da aukerako tailer ezberdin batzuk bilakatzea,

3. Gramatikaz ere ematen digute informaziorik, esaldi mailako akatsik ere ageri da, baina SD honen helburua ez da hori aztertzea izango.

eta ardatz baten inguruan biltzea eta ekitea. Hari horrek ekintza osoari eta etapa desberdinei zentzua ematen die.

Tailerrak ez daude isolaturik, baina nolabaiteko autonomia errepara dakioke bakoitzari. Tailer bat antolatu den unean, bertan eskuratutako emaitzak tailer bakoitzaren xede propioen arabera izan ohi dira. Horrela, tailerraren xedea beste ekintza baten hasiera bihurtuko da, eta ondorioz beste zenbait alor desberdin jorratzeko abiapuntu ere bai. Tailerren helburua, trebezia zehatzak lantzeko aukera da.

Ikasleek, irakaslearen laguntzarekin, *kontrol-zerrenda* moldatuko dute, non tailerretan landutako eduki garrantzitsuenak jasotzen diren, eta ikasleari bere bigarren ekoizpenean kontuan har ditzan eskatuko zaion. Lanabes bat da, kanpoko memoria antzeko zerbait.

Jo dezagun berriz ere “*Negu Gorriak*” SD adibidera. Ondo erreparatzen badugu lehenengo tailerrean testuaren egitura osoari egiten zaio jaramon, nahiz eta haserako atala soilik lantzen den: ikusiko da hasieran zer egiten/esaten den, eta gero hasierako atal horren egitura bera nola lantzen den. Hona ekarri dugu SD honen hiru tailerretako eskema:

1. TAILERRA. Helburua: iritzi-artikuluaren atalak, hasierakoak, eta atal horiek bideratzeko erabiltzen diren hizkuntza baliabideak identifikatzea.

1. ariketa. Iritzi-artikuluetan agertzen diren hasierako atalak identifikatzea

- a Zer dela-ta hasten da egilea idazten? Hitzunak azaldu beharko du zerk dakarren luma hartzera, hots, zein den berbabidea.
- b Ikusi beharko da egileak nola ekartzen eta formulatzen duen besteen iritzia edo ikuspuntua.
- c Egileak bere iritzia nola aurkezten duen ere ikusi beharko da.

2. ariketa. Ariketa honen helburua da aitzakia bezala darabilgun aldizkaririk elkarriketa moldatu bat ateratzea, eta bertan ikus daitezkeen idatz baliabideak lantzea.

3. ariketa. Ondorengo testua dela eta, emandako 1), 2) eta 3) erantzunean ohiko zatiren bat falta da. Seinalatu zein den.

2. TAILERRA. Helburua: Bestearen iritzia gure hitzetan jartzeko baliabideak lantzea da.

1. ariketa. Bestek esandakoarekin erabateko adostasunetik erabateko desadostasunerarte maila askotako ikuspuntuak egon daitezke. Gure iritziari nabardurak jartzen ikasiko dugu.

2. ariketa. Nola pasa elkarriketa jardunetik monologora, zehatzago, monogestiora.

3. TAILERRA. Helburua: Iritzi-testuetako “ahots” ezberdinekin jokatzeko ikasi

1. ariketa. Inkesta bidez bildutako zenbait iritzi eskainiko zaio ikasleari. eta ondoren zera eskatzen zaio: horiekin guztiekin testu monogestionatu bat egitea, bakoitzaren argudioak eta arrazoiak ere kontuan hartuz.
2. ariketa. Inkestatik testuera bakarrera. Aurrekoaren aldaki bat da: ahots ugari eta ezberdinak bilduz osatzen da norberaren aburua. Aurreko ariketan bezala baina testu jarraitu eta arrazoitu bat osatu behar da inkestan datozen iritziak norberaren testura -zehar bidez- ekarri.

4.4. Bukaerako ekoizpena, ondotestua, errebisioa, eta ebaluazio etapa (BEE)

SDaren atal honetan azken ekoizpen bat lortu behar da, non ikasleek tailerretan ikasi dituzten jakituriak eta abileziak baliatu beharko dituzten. Eraikitako eta eskuratutako ezagutzen bilgunea da. Testuaren ber-eraikitzea edo berritaztea. Ikasleak SDan zehar lorturiko maila hobekuntza erakusten du. Hau da, ikasleak SDko helburuak nola eta zein mailatan betetzen dituen erakusten digu; baina baita taldeak zein bakoitzak dituzten hutsune eta premiak ere. Ekoizpen honek lehenengoaren helburu bera izan dezake edo, haren antzekoren bat, baina oraingoan ikasleak lehen ez zituen baliabideak izango ditu testuari -hizkuntza ekintzari-irtenbidea emateko. Ohikoa izaten da SDaren azken atalera heltzen denean ikasitakoaren laburpen edo eskema bat eskura izatea, ikasleak berak eginikoa edota materiala sortu duenak tailerrez tailer ikasi beharrekoen konstatazio eta oroigarri gisa eskainia: kontrolerako zerrenda deritzo.

Gure SD adibidean, azken orrialdean ageri da azken fasea edo berridazketa atala. Esan dugun bezala, helburua argitzeaz gain, testu-hasiera idazten ikasteko erakutsi diren baliabideen zerrenda ageri da, errebisiorako lagungarri izango dena. Irakas-saio honetan parte hartu zuten bi ikasleren aurretestuak eta ondotestuak ekarri ditugu eranskinera bata bestearen ondoan jarrita. Adibide hauek balio dezakete esaten ari garena frogatzeko, alegia aurretestutik ondotestura aurrerapenik egon den edo ez, eta proposatu diren ariketak zenbateraino kontuan hartu diren ikusteko. Ebaluaziorako atala ere bada azken atal hau. Kontrol eta erregulazio gunea da irakaslearentzat; jarritako helburuak lortu diren ikus daiteke; lorpenak eta hutsuneak aztertuz jarraipenerako abiapuntua bideratzeko ezinbesteko lanabesa. Jakina, ebaluazioa egin ahal izateko, bi baldintza bete behar dira: batetik, hasieran helburu gutxi batzuk formulatu direla, konparazioa egin ahal izateko; eta bestetik, helburu horiek lortzeko metodologia jakina baliatu dela. Behin bi osagarri horiek mugatuz, aurreikusitako emaitzak lortu diren erantzun egiaztatu ahal da. Sainzek (2010: 74 eta ond) aparteko atala eskaintzen dio ebaluazio puntu honi. Bertara jo dezake irakurleak.

Adibideko SDa egin duten bi ikasleren aurre eta ondotestuak konparatuko ditugu ondoren. Bigarren eranskinean “Negu gorriak” SDa frogatu zenean ekoiztutako 4 testu ageri dira: A1 deitutako dugu lehenengo ikaslearen aurretestua, eta A2, bere ondotestua. B1 eta B2 bigarren ikaslearen aurre eta ondotestuak izango dira. Hauek dira testuetan agertzen diren hasierako paragrafoak, hurrenez hurren.

- A1 "Entzun aldizkariko zuzendari agurgarria: Egia esanda niri ez zait NEGU GORRIAK egiten duen musika gustatzen"
- A2 "Zuzendari agurgarria: Irakurri berri dut ENTZUN MUSIKA ALDIZKARIAN idatzi duzun artikulua eta nahiko txarto geratu naiz hau jakiterakoan"
- B1 "Zuzendari agurgarri Jauna: Hasteko zerbait esan nahi nuke. Nik ez dut NEGU GORRIAK taldea entzuten"
- B2 "Zuzendari agurgarri Jauna: Irakurri dut I. Merkaderren gutuna eta zerbait esan nahi nuke. Ez dut NEGU GORRIAK taldea asko entzuten, baina ez zaizkit txarrak iruditzen

Gorago esan dugun bezala, gabezia nabarmena ageri da aurrettestuetan (A1 eta B1 testuetan). Ez dakite gaia, besteak esandakoa, eta hizpide izango dena norberaren testura ekartzen. Ez dute ondo irudikatzen hartzaileak (irakurleak) ez dakie-la zertaz ari den, edota berak irakurri duen testua ez duela irakurleak derrigorrez irakurri berria. Ondotestuetan (A2 /B2), berriz, biak egiten dute ahalegina hartarako ikasi dituzten hizkuntz moldeak erabiliz "irakurri berri dut/irakurri dut". Nolanahi ere, A2n solaskide bezala aldizkariko zuzendaria bera hartzen da, bera izan balitz bezala erreferentzizko gutuna idatzi zuena. B2k aldiz garbi uzten du zein del gutunaren egilea eta bere solaskidea. Tailerretan landu diren lanabesen eragina zenbaterainokoa izan den aztertzeko testuei begiratzen jarraituko dugu. Adostasunak eta desadostasunak nabarduraz adierazten ikasteko helburua dute 2. tailerreko ariketek. Izan ere aurrettestuak begiratzen badira, batetik ez dago eztabaidarik solaskidearekin. A1 ia osorik lehenengo pertsonan idatzia dago (ez zait, uste dut, ...) A2 testuan aldiz 2. pertsona sartzen du eta zuzendariarekin (?) eztabaida sortzen du zertan ados eta zertan ez datorren ados esanaz. B1 testuan, solaskidea ekartzen du testuaren erdiparean eta harekin eztabaida egiten du lehenengo eta bigarren pertsonak erabiliaz. B2 ondotestuan, hasieratik uzten du garbi norekin ari den solasean eta arrazoiak eztabaidatzen. Argudiozko testuetan, eta zuzendariari idazten diren gutunak izaera hau dute, ahotsak garbi kudeatzeaz gain, modalizatzen jakin behar da, helburua bestearen iritzia aldatu edota gureganatzea izan ohi delako. Gure SDan 1.go tailerrean zenbait molde erakutsi dira iritziak kortesiaz defendatzeko. Bereziki testu hasiera lantzea helburua izan bada ere, testu osoan ikus daiteke emandako ereduaren eragina. Eta aurrettestuan bertan ikus daiteke eragin hau, hain zuzen bukaerako edo agurtze formuletan. A1 eta A2 testuetan guk emandako konsignan zetorren bukaera ageri da: "Baina hau nire iritzia baino ez da. Gogoz entzungo nituzke beste batzuenak ere". B1 testuan ikusi dugu eztabaida hobeto kudeatzen dela, baina kortesia kontuak, bukaera kontuak ez daude landuak. Hau da B1-eko bukaera: "Ni horretan ez nago ados". Ez dago agurrik ere. B2koa zerbait hobetu da: "Baina hori nire iritzia baino ez da. Gogoz entzungo nituzke beste batzuenak ere. Beraz agurtzen naiz."

5. AZKEN HITZAK

Lerro hauek ez digute itsaso berririk deskubritzen. Gure helburua xumeagoa eta konketuagoa izan da. Badakigu jakin didaktika, oro har, eta hizkuntzaren didaktika bereziki, bigarren (mailako) zientzia modura ikusi izan dela duela gutxi arte. Egun ere ahaleginak eta bi egiten da zientzia estatusa, hots, zientzia bere-

gaina edo autonomia izateko. Ahalegin honetan, bada didaktikak bere-bere duen lanabes bat: sekuentzia didaktikoa (SD). Eta haxe da gure lanean "aurkeztu" gura duguna: sekuentziaren estatus epistemologikoa eta metodologikoa hizkuntzen ikas/irakaskuntzarako. Uste dugu lanabes fidagarria dela irakaslearentzat. Horretarako, SDaren ezaugarriak laburbildu ditugu. Genevako eskolatik datorkigun lanabes hau ingenieritza didaktikoak hizkuntzen irakaskuntzarako sortu duen baliabide zehatz eta fidagarria dela erakutsi gura izan dugu. Gure adibidean erakusten ahalegindu garen bezala, irakatsi behar dena eta irakasten dena zehazki ikusarazten duena, didaktikan gutxitan ematen den fidagarritasuna eskaintzen duen lanabes profesionala dela hizkuntza irakaslearentzat. SDak -guk ulertu eran- hiru ardatz ditu: proiektua, hizkuntz ekintza, eta helburuak. Ibilbide barne eta autoerregulatua da, hasieratik bukaeraraino, hobekuntza kontrolatua dakarrena. Prozesu estrukturala bainoago prozesu organikoa da, hazkunde organikoaren arabera, hain zuzen. 4 etapa bereizi dira, eta bakoitzaren ezaugarriak eta jokabideak, sekuentzia osoaren ezaugarri eta jokabideari eragiten diete. Prozesuaren hasierako eta amaierako egoerak ezberdinak dira; bi tarte horietan ziklo didaktikoa gertatzen delarik. Zikloa amaitzean, balioak hasieran ez bezalakoak dira, orduan gertatzen baita benetako aldaketa.

Etaparen edo modulu bakoitzak berak bakarrik ez du sistema gisa funtzionatu, ez du osotasunik izango, hau lortzeko elementu guztien konbinazio eta interakzioa /elkarreragina beharrezkoa izango baita.

6. BIBLIOGRAFIA

- BRONCKART, Jean-Paul. *Hizkuntzaren zientziak: irakaskuntzarako desafioa?*, Donostia: HABE, Itzulpen Saila, 33, 1993.[Jatorrizkoa frantsesez dago: *Les sciences du langage: un défi pour l'enseignant?*. Paris: Unesco. Delachaux & Niestlé, 1985].
- BRONCKART, Jean-Paul. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Paris: Unesco. Delachaux et Niestlé, 1997. Ed. Gaztelaniaz: (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo sociodiscursivo*. Madrid: Infancia y Aprendizaje.
- BRONCKART, Jean-Paul. "La explicación en psicología ante el desafío del significado". In: *Estudios de Psicología*, 23, 2002, pp. 387-416.
- BRONCKART, Jean-Paul; PLAZOLA-GIGER, Itziar. "La transposition didactique. Histoire et perspectives d'une problématique fondatrice". In: *Pratiques*, 97-98, 1998, pp. 35-58.
- CAMPS, Ana. "Didáctica de la lengua: la emergencia de un campo científico específico". In: *Infancia y Aprendizaje*, 62-63, 1993, pp. 209-217.
- CAMPS, Ana; DOLZ, Joaquim. "Proyectos de Lengua, entre la teoría y la práctica". In: *Cultura y Comunicación*, 2, 1996, pp. 27-102.
- DOLZ, Joaquim; GAGNON, Roxane. "El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito". In: *Lenguaje*, 38 (2), 2010, pp. 497-527.
- DOLZ, Joaquim; SCHNEUWLY, Bernard. *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF, 1998.
- ESNAL, Pello. "HEOK: hizkuntzaren ikuspegi dialektikoa". *Helduen Euskalduntzearen II. eta III. Jardunaldiak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2001.

GALISON, Roger; COSTE, Daniel. *Dictionnaire de didactique des langues*. Paris: Hatier, 1976.

SCHNEUWLY, Bernard. "Diversification et progression en DFL: L'apport des typologies". In: *Études de Linguistique Appliquée*, 83, 1991, pp. 131-141.

ZAKHARTCHOUK, Jean-Michel. *Comprendre les énoncés et les consignes*. Amiens: Cahiers pédagogiques, 1999.

1. ERANSKINA. "NEGU GORRIAK " SEKUENTZIA DIDAKTIKOA



NEGU GORRIAK, EUSKAL ROKARENTZAT BIDE BERRIAK ?

NEGU GORRIAK taldearenak egin du. Esan gura dut, taldea desegin egin dela edo desagertu egin dela. Negutarrak, bada, beraz joan egin zaizkigu.

Dozenaldi bat urte pasatxo igaro dute elkarrekin, eta hainbat diska utzi dizkigute aldi horretan. Ni ez nauzute jarraitzaile amorratu horietarikoa, baina jarraitzailea bai. NGen diskak erosi eta entzun egin ditudala esan behar.

Okasio hau aprobetxatuz, zertxobait esan nahi nuke NEGU GORRIAK taldearen musikagintza.

Negukoek eskaini diguten musikak usain berezia ekarri duenik ez dago dudarik: bai gaietan, bai musika estiloan -ez baitira rockera mugatu- eta baita ere, egin duten marketin

eta produktoaren osakeran. Azken alderdia oso importantea iruditzen zait. Izan ere, izan duen arrakastaren arrazoietariko bat, baliteke marketina bera izatea.

Halan eta guzti ere, niri neuri, nahiko musika nahasia iruditzen zait. Ez du estilo propiorik sortu. Honetan zerrikusi haundia dute bertsioek: oso ugariak dira, ugariegiak akaso. Bestalde, letraren eta musikaren artean desorekak daudela pentsatzen dut.

Baina hau nire iritzia baino ez da. Gogoñ entzungo nituzke beste batzuenak ere.

I. Merkader. Bilbo (ENTZUN 4. zenbakitik hartua)

NEGU GORRIAK taldearen musikagintza dela eta ENTZUN aldizkarian agertu iritziaz ez gaude konforme; gure ustetan, bada zuzendu eta zehaztu beharrik. Eta guk ere, erantzun gisa, beste idatzi bat bidali nahi dugu aldizkari horretara, gure iritzia agertuz. Saia zaitetz, beraz, ENTZUN aldizkarian argitaratzeko idatzi bat egiten aurrekoari erantzunez.





SEKUENTZIA DIDAKTIKOA 1. "NIK ERE NERE IRITZIA EMATEN DUT": IRITZIAREN AURKEZPENA

Aurkezpen orokorra

Aldizkari baterako gure iritzia ematen ikasi nahi dugu. Idatz-egoera hauxe litzateke: Gu ez gaude ados aurrez agertu den idatziakin eta gure iritzia (desadostasuna) idatziz eman nahi dugu.

Eginkizun honek trebetasun asko eskatzen ditu. Denak ezin ditugu batera landu. Oraingoan, iritziaren aurkezpena zelan egin ikasiko dugu. Beste baterako itxiko ditugu iritziaren justifikazioa, arrazoiak etabar ematea.

Holako testuetan ez da iritziaren aurkezpena hasieran bertan botatzen. Aldez aurretik beste bi pausu eman ohi dira eta hori nola egin ikasi nahi dugu sekuentzi honetako saioetan, tailerrez-tailer.

1. tailerra

Helburua: Iritzi-testuen sarreran ohiko diren atalak eta atal horiek bideratzeko erabiltzen diren hizkuntz baliabideak identifikatzea.

1. Ariketa: Iritzi testuetan agertzen diren haserako hiru atalak identifikatzea.

Hauek dira hiru atal horiek:

- a. Zer dela-ta hasten da egilea idazten
- b. Bestearen iritzia nola ekartzen duen egileak bere testura
- c. Egileak bere iritzia nola aurkezten duen.

Begira nola gertatzen den ondoko testuan:

J.L.L. jaunari

Irakurri berri dut ostiral honetako EUSKALDUNEN EGUNKARIAn (96-11-22) idatzi duzun artikulua, eta bertan aipatutakoak kezkatuta utzi nau. Esaten duzunaren arabera, Ibaizabal izena Nervión izenaren itzulpena dela baieztatzen duzu. Ni ez nator bat han diozunarekin. Nire zalantzak argitzeko, Elhuyar Hiztegi Enziklopedikoa-n begiratu dut eta argi eta garbi Ibaizabal eta Nerbioi bereiztu egiten ditu.

a. atala: *Irakurri berri dut ... nau.*

b. atala: *Esaten duzunaren arabera ... baieztatzen duzu.*

c. atala: *Ni ez nator bat han diozunarekin*

Ondoren dituzun testuetan aurrekoan egin dugun gauza bera egin behar duzu. Azpimarra ezazu

- gorriz *a* atala
- berdez *b* atala
- urdinez *c* atala

1. testua

"Pasada den astean, sail honetan, "Zer ordutan etxeratu?" artiluan guraso batek agertzen duen iritzia dela eta, zerbait esan nahi nuke lerro hauetan. Guraso horren ustetan, gaurko gazteak, ahalik eta beranduen etxeratu nahi dute, nahiz eta kale baztarretan zer egin jakin ez. Eta horretan ez ei dute etxekoekiko inolako kontsideraziorik. Ez dut esango hori beti gezurra denik, baina ezin dut onartu jarrera jenerala dela esatea. (...) "

2. testua

"Duela egun batzuk, TXEPETXA Euskaltegi 7. urratseko ikasleek Kulebroiei buruzko euren iritzia agertu zuten. Urteak joan eta urteak etorri, E.T.B.ren programazioak txarrera egin duela salatzen zuten. Arrazoiatariko bat Kulebroiak ziren. Beraiek nahigo dituzte marrazki bizidunak. Ni ez nago marrazki bizidunen kontra. Baina, zer egin Kulebroiak gustatzen bazaizkit? Ni ez nator bat zuen planteamenduarekin. (...) "

3. testua

" Eskutitz hau idazteko arrazoia, lehengo egunean irakurri nuen artikulu batetan (Egunkaria, 1997.1.10) gazteei buruz esaten zuena da. Egileak, L. Goñik, euskal gazteak ez daudela komprometitua esaten zuen, euskal gazteria praktizismo hutsarekin kutsatua dagoela gehituz. Niri neuri iruditzen zait hori ezin dela bere horretan onartu. Eta ondoengo lerroetan nire jarrera agertu eta justifikatuko dut. (...) "



Larringan & Idiazabal 97: 1



2. Ariketa

Aurreko ariketan, testu dezberdinetako sarrerako atalak markatzeko erabiltzen diren formulak identifikatu eta sailkatu egin behar dituzu orain. Osatu ondorengo zerrendak:

a atala: Idatzi beharraren zirkuntstantziak agertzeko baliabideak:

- irakurri berri dut ... zure arikulua

-
-
-

b atala: Beste baten ikuspuntua ekartzeko erabiltzen diren formulak:

- Esaten duzunaren arabera ... -la baieztatzen duzu.

-
-
-

c atala: Norberaren iritzia aurkezteko egiteko erabiltzen diren esamoldeak:

- Ni ez nator bat ... -(r)ekin

-
-
-

3. Ariketa

Ondorengo testua dela eta, emandako 1), 2) eta 3) erantzunetan ohiko zaien bat falta da. Seinalatu zein den.

Merkealdietan zarata asko eta ezer gutxi

Pasatu dira Gabonak eta, urtero bezala, heldu dira merkealdiak. Bazterrak, hori iragartzen duten letreroz josita daude. Badirudi erregalatu egiten dizutela, baina bertan eta ganorazkorik ezer ez. Amaia (Serantes Aldizkaria, 1997.1.9)

Larringan & Idiazabal 97: 1



1)

Kaixo Amaia:

Zure iritziarekin ez nago ados. Merkealdiak ez dira gezur hutsak. Ibili eta ibili, nik behintzat, beti aurkitzen dut zerbait "ganorazkoa".

Besterik gabe

Elena

1. testuan falta den zatia:

2)

Kaixo:

Serantes aldizkarian Amaiak esaten duenarekin ez nator ados. Gauza merkeak bilatzen ditut eta gainera oso ondo pasatzen dut. Gora Merkealdiak!

Satur

2. testuan falta den zatia:

3)

Merkealdiak.

Amaiak Serantes aldizkarian, duela aste bete merkealdiak direla ta idatzi duen artikulua irakurri dut. Bertan, merkealdiak gezurraldiak ezeze ezerezaldiak ere badirela esaten du. Beste bat arte.

3. testuan falta den zatia:

Aurreko testuetan falta diran zatiak hauexek dira:

1) testuan:

2) testuan:

3) testuan:



5





2. Tailerra

Helburua: Bestearen iritzia gure hitzetan jartzeko baliabideak lantzea

1. ariketa. Besteak esandakoarekin erabateko adostasunetik erabateko desadostasunerarte maila askotako ikuspuntuak egon daitezke. Gure iritziari ñabardurak jartzen ikasiko dugu.

Ondoko testuarekin jokatu dugu:

"EZEREZETIK EZEREZ"

"Gure gizartean, gai ugari eragiten dituzte eztabaida sutsuak. Horieta bat kutsaduraren gaia dugu. Kutsadurarik Gabeko Nazioarteko Eguna iristean, gai horren inguruan iritzi eta ikuspuntu ezberdinak agertzen dira. Bakoitzak ditu bere planteamendu propioak eta irtenbideak ere bai. Nik, ondorengo lerroetan, neurea agertuko dut.

Industria garapenaren ezaugarrietako bat da. Herri aurreratuak izan nahi dugu, industrializatuak, aurrerapen guztiak euki nahi ditugu. Eta horren ondorioetarik bat kutsadura da. Lantegiak ipini, kotxeak, automobilak eta abioaiak euki, etabar, horrek prezioa bat du: guk nahi ez gukeen kutsadura hain zuen. Ez dugu nahi, baiian ezinbestean sortzen dugu. Kutsadurarik ez! aldarrikatzen dutenek oso kontutan euki beharko lukete hori protestaka hasi aurretik. Izan ere, ezerezetik ezerez!.

Joxean Murgi

Eman dezagun horrela hasten zerala aurreko testuari erantzuten:

Irakurri dut Joxean Murgiren artikulua. Bertan kutsadura aurrerapenaren ezinbesteko ondorioa dela esaten da, eta ezerezetik ez dagoela ezer.

1.1. Adostasuna agertu nahi duzu. Zelan jarraituko duzu? Ondorengo aukeretatik zuzenena/ egokiena azpimarratu.

- a) Nire ustetan, ikuspuntu hori ez da koherentea eta pentsatzen dut zuzendu egin behar dela;
- b) Nik neuk Murgi jaunak esaten duenarekin bat natorrela esan behar dut.
- c) Ondorengo lerroetan Murgi jaunak emandako arrazoiez aparte beste batzuk aipatu nahi nituzke, garrantzitsuagoak direnak niretzat.
- d) Murgi jaunak adierazi iritziaz aparte, beste bat proposatu nahi nuke.

- Zertan (esamolde, hitz, ...) oinarritu zara egin duzun aukera egiteko?.
Adierazi hemen

1.2. Desadostasuna agertu nahi duzu. Zelan jarraituko duzu? Ondorengo aukeretatik zuzenena/ egokiena azpimarratu.

- a) Posizio edo aburu hori dela eta, badut esatekorik. Mugak ez dira guztiz argiak.
- b) Artikulugilearen ikuspuntua kontutan hartzekoa da eta azterketa egiteko egokia iruditzen zait.
- c) Iruditzen zait Murgi Jaunak industrializazioaren alderdi batzuk hartzen dituela kontutan. Eta analisiak badu arrazoibiderik.
- d) Murgi jaunaren posizioa defendatzeko bada arrazoirik; edozein kasutan, ni ez nator inolaz ere ados haren konklusioekin.

- Zertan (esamolde, hitz, ...) oinarritu zara egin duzun aukera egiteko?.
Adierazi hemen

1.3. Adostasun partziala agertu nahi duzu. Bada zehaztu beharrik. Zelan jarraituko duzu? Ondorengo aukeretatik zuzenena/ egokiena azpimarratu.

- a) Murgi jaunak agertzen duen iritzia defendatzeko, bada arrazoirik. Baina ezin da haren iritzia bere horretan onartu: zehaztu eta gehiago matizatu beharra dago.
- b) Aipatu jarrera analisi oker batetik egin dago. Ezin dira bi elementuak kontrajarri. Ni analisi horren kontra nago. Ez nator bat.
- c) Zer pentsatzen dudan guzti horretaz? Murgi jaunaren iritzia kontutan eukitekoa da, eta orohar zenbait gauzatan bat nator berarekin.
- d) Egileak eskaintzen duen iritzia ez nau oso-osoan konbentzitzen. Zergatik oposizio hori? Zergatik industria ala kutsadura?



- Zertan (esamolde, hitz, ...) oinarritu zara egin duzun aukera egiteko?.
Adierazi hemen

1.4. Adostasuna partziala eta modalizatua (matizatua) agertu nahi duzu.
Zelan jarraituko duzu? Ondorengo aukeretatik zuzenena/ egokiena azpimarratu.

- a) Murgi jaunaren ustetan, kutsadura gaitzerdi da. Kutsaduraren kontra dago, baina ez ei dago beste erremediorik. Nire iritziz gauza bat argitu behar da: kutsadura derrigorrezkoa izango da, baina ahalik eta kutsadurarik gutxien behintzat.
- b) Murgiren jarrera nahiko "biktimista da". Derrigorrezko prezioa. Ni behintzat ez nago hori horrela dela onartzeko prest. Bere hitzetan eskaintzen dizkigun arrazoiak....
- c) Ni jaun horrekin eta bere posizioarekin nahiko ados nago: dena nahi dut baina gure aldetik ezer egin gabe.
- d) Murgiren ikuspuntuarekin bat egite dut neurri batetan eta orohar. Edozein kasutan, azalpen gehiago emango nituzke, ahalik eta garbienak izan gaitezen, ez baita garbia asko garbitzen duena, gutxi zikintzen duna baizik.

- Zertan (esamolde, hitz, ...) oinarritu zara egin duzun aukera egiteko?.
Adierazi hemen





2. ariketa. Alkarrizketatik monologora.

Ikus ENTZUN aldizkaritik atera dugun eredu. Elkarriketa baten transformazio bat da. Zenbait hizkuntz-baliabide erabili dira:

- Ez dira galderak agertzen
- Erantzunak, batzuetan, zehar estiloan agertzen dira: *"ilusio handiz dagoela aitortu digu" "Dioenez gauzak ondo egitea gustatzen zaio"*
- Beste batzuetan, estilo zuzenean, esan bezala agertzen dira; orduan komatxo (" ") artean datoz eta aditza lehenengo pertsonan.
- Erantzunetan esandakoa adierazteko *"esan erako aditz"* asko agertzen da: *aitortu digu, uste du, dio, dioenez,*
- Honelako aditz asko daude: *baieztatu, adierazi, aipatu, azaldu, agertu, plazaratu, luzatu, eskeini, ...*

2.1. Azter ezazu testua eta adierazi parrafoz-parrafo aipatu ditugun baliabideak.

ITOIZEN ITZALETIK ALDENDUZ

Berri zendaurrean azaltzeko ilusio handiz dagoela aitortu digu Juan Carlos Perezek. Diskoa eta ondoren zuzenean entzungo duguna ordea, ez da gauza berbera izango. "Kantek indar gehiago izango dute zuzenean, nahiz eta berdin oz egin, borobila goak izango dira".

Dena den ez du kontzertuetan Itoizeko kantuak egiteko asmonik. "Egitekotan, aspaldi jo ez ditudan abestiak izango lirateke, lehendabiziko diskokoak, bat edo bi gehienera. Bestela errepikarpen bat izango litzateke".

JC Perezek betirako eramango du Itoizen zama bizkar gainean. Egia esan Itoizek oraindik indar handia du eta jendeak ez ditu talde honen kantuak ahaztu. "Ez dakit baina esango nuke Itoiz oraindik aktibo dagoela. Asko hitzegiten da eta hitzegiten dut, eta baita ere saldu". Eta guzti hau luzaroan iraungo duela uste du. Horregatik dio "momentu honetan Itoiz da nire kompetentzia".

Euskal Herritik kanporako pausua emateko prest dago. "Nik egingo nuke saltoa, edonora. Beti ere hobekuntza suposatuko bala. Baina oso gustora nago euskaraz kantatzen".

Itoizen garaian abesti bat erderaz grabatuz gero merkatua zabalduko zitzaizela ziurtatzen zitzairen. "Baina ibilbide koerente baten ondoren, zentzunik ote du abesti bakar bat egiteak erdaraz? Zer dakar horrek? Zenbat disko salduko zituen abesti horrek?".

Dioenez gauzak ondo egitea gustatzen zaio. Denbora izan lan egiteko; "eta hori hemen badut".

2.2. Ondoan duzun elkarrizketari beste forma bat eman behar diozu. Izenburua jarri eta elkarrizketan datozen ideiak beste "itxura" batean bildu. Horrek aldaketa zenbait egitera behartzen zaitu. Kontuan izan lehen ikusi/ikasi duzuna.

Entzun- Gari Kantautore bat al da?


Gari.- Ez dut uste kantautore a naizenik. Kantautore a letretan oinarritzen da batez ere, eta ni musikoa naiz, letra ere kontutan izan arren.

E.- Musika egiterakoan, badirudi estilo bat egiteko atzetik zabiltzala.

Gari.- Ni "de la vieja guardia naiz": nik albumak egiten ditut, eta ohitura daukat lanak borobiltzeko.

E.- Zer iruditzen zaizu "El inquilino comunista"?

Gari.- Oso gustokoa dut. Oso gusto ona dute diskoan behintzat. Eta hori nahiz eta musika mimetikoa duten arren.





3. tailerra.

Helburua: Iritzi-testuetako "ahots" ezberdinekin jokatzeko ikasi

1. ariketa: INKESTATIK ABIATUZ

"Leku publikoetan ezeze kalean ere ezingo da erre. Erre nahi dutenek, kabina batzuetan egin beharko dute. Hala erabaki dute arduradun publikoek. Horrela tabakoaren kontra aritu nahi dute."

1) Felix: Niri erabaki hori oso gaizki iruditzen zait. Bada beste gauzarik kaleetan egin beharrik: zuloak tapatu esaterako.

2) Axun: Ez zait gaizki iruditzen. Horrela gutxiago erreko da, eta erretzeari uztea errazago izango da.

3) Kepa: Nik ez dut erretzen. Erabakiak ez nau zuzenean ikutzen. Beste iritzi batzuk ere ikusi beharko lirateke.

4) Rosa: Kalean erretzea debekatu egin dutela...? Ni ez nator bat erabaki horrekin. Ez da inolako kontsultarik egin. Erabakiak ez du ez bururik ez hankarik.

-KONTSIGNA: Hasierako testua kontuan hartuz, lau iritzi ezberdin agertzen dira: 1), 2), 3) eta 4). Hona zure eginkizuna: iritzi bat asumitu behar duzu eta berori agertu. Baina zure hori aurkeztu baino lehen, beste batena testuratu beharko duzu. Honela:

- Aukeratzen dudana ikuspuntua: Felixena
- Aldez aurretik kontuan eukiko dudana: Axunena

Adibidez:

"Leku publikoetan erretzea debekatu egindo dutela eta, Felixek oso gaizki iruditzen zaiola dio, hori baino aurrerakorik bai baitago. Niri neuri ez zaidala horren gaizki iruditzen esan behar dut."

Zure aukera:

Norena duzu kontutan?:

Diozuna:

2. ariketa. Inkestatik bakartestura.

TA ZURE USTEZ?

IRITZIA

Usoak hil egin behar direla uste duzu?



Carmen Arizmendiarrrieta
73 urte, etxekoandrea

Usua asko gustatzen jar. Ni animalariak nartz eta pena handia ematen dia hiltziak. Baina kalta giten badaude zozor ein bihar. Hiltzia baino nahixao edozor



Ander Mujika
8 urte, ikaslea

Gaizki dago usuak hiltzia. Nunbaitxera eruan eta zaindu ein biharko zian. Lekuren bat jarri eta jatekua eman.



Francisco Ribao
21 urte, ikaslea

Ondo iruditzen zait usuak hiltzea benetan arazoak badaude. Gehiegi edo gaisorik baleude adibidez; jendearen kezkatik ez.



Antonia Martinez
48 urte, etxekoandrea
Usuak hiltzeak pena emango lidake. Gaisorik badaude har ditzatela eta zaindu. Usoek ez diote inori minik ematen.



Maria Luisa Martinez
28 urte, saltzailea

Gaisorik baldin badaude hil, ze danontzako kaltegarria da. Usuak bestela politxak dira, herriari gauza politxa emoten deute.



Iñaki Santos
45 urte, tomeroa

Toke erromantikoa ematen dutela uste dut. Gehiegi baldin badaude hil egin behar dira baina denak ez. Batzuk utzi beharko dira ez?

- Ondoan dituzu inkesta batean jasotako zenbait iritzi. Lehen egin duzun antzera, bi edo hiru erantzun bilduaz eman zure iritzia testu jarraitu baten, esan duenaren izen-abizen, urte eta ogibidea kenduz.

jarraitu atzekaldean behar izan ezkeror.



Azken testua.

Iritzi-testuen sarrera egiteko hainbat gauza ikasi duzu dagoeneko. NG-i buruz ENTZUN-erako idatzitakoa berrikusi eta hobetu beharko zenuke.

Helburua: Sekuentzi didaktikoaren ebaluaketa

. Gogoan izan ikasitako hizkuntz baliabideak:

- hasierakoak eta azpiatalak markatzekoak,
- besteak esandakoa -zuzenean zein zeharka- aipatzekoak,
- adostasuna adieraztekoak,
- ezadostasuna agertzekoak,
- iritzia matizatzekoak,

Eman izenburu bat (eta/edo zuzendariari agurra) eta ez ahaztu betiko idatz-arauak: maiuskulak, puntuazioa, ortografia eta gainerakoak.

jarraitu atzekaldean behar izan ezker

2. ERANSKINAK. A1, 12, B1, B2 TESTUAK



Entzun aldizkariko zutendari arguagarrira

Egia esanda niri ez zait NEGU GORRIAK egiten duen musika gustatzen. Alabari batak poa egite dait baina ez asko. Niretzako talde hau desegite berdin zait ez dut ulertzen nola hori duten hainbeste gaita musika nahasi horrekin. Gaita dena talde hau idolo bezala dute baina nik ez dut usie hainbestekoa denik. Talde bonak (SU.TA.GAR, Lotzen, ...) dira eta ez NEGU GORRIAK.

Hala eta guzti ere espero dut taldea berri batza eta NG-ko taldearen jarraitzaile amari hori berri taldearekin disjuntatzea.

Berri hau nire irihia baina ez da. Gero? entzungo nioke best batzuek ere.

Larrigan & Idiazabal 97: 1

A2



Azken testua.

Iritzi-testuen sarrera egiteko hainbat gauza ikasi duzu dagoeneko. NG-i buruz ENTZUN-erako idatzitakoa berrikusi eta hobetu beharko zenuke.
Helburua: Sekuentzia didaktikoaren ebaluaketa

- . Gogoan izan ikasitako hizkuntz baliabideak:
- hasierakoak eta azpiatalak markatzekoak,
- besteak esandakoa -zuzenean zein zeharka- aipatzekoak,
- adostasuna adieraztekoak,
- ezadostasuna agertzekoak,
- iritzia matizatzekoak,

. Eman izenburu bat (eta/edo zuzendariari agurra) eta ez ahaztu betiko idatz-arauak: maiuskulak, puntuazioa, ortografia eta gainerakoak.

Zuzendari agurra:

Irakurri berri dut ENTZUN MUSIKA ALDIZKARIA-n idatzitako artikulua eta nahiko txarto geratu naitz hau jakiterukoan. Ni ez nuen espero NEGU GORRIAK desagingo zela.

Esaten dutunaren arabera NG-K hainbat disko utzi ditzakeela arabera BE-K baidatzen duzu. Ni NG-aren jarraitzaile amonatuak naiz. Haren diskak entzun ditut eta oso ondo daude.

Ni ez naiz bat askenera esaten dutunarekin. NG-aren musika ez da nahasia. Bere estiloa hau da eta bereak sortu egin dute, eta horregatik ditu hainbeste jarraitzaile.

Baina hau nire iritzia baino ez da. Gogoz entzungo nitutke beste batzuenak ere.

Irakurri ENTZUN MUSIKA ALDIZKARIA-n

43

(B1)

Zuzendari agungarri jaunai:

) Hasteko, zenbait esan nahi nuke Nik ez dut NEGU GORRIAK taldea entzuten. Ez zaizkit oso txarrak iruditen eta abestiren bat gustatu egiten zait. Alia ere jeneralaren ez zaizkidat gustatzen.

Taldea honek gende askoren gustokoa da, baina bere arrakastaren beste arrazoi bat, nire ustea, usin duten marketinga da. Honekin adoz nago Bilbotik idatzi zuten I. Merkader-ekin, bera ere esaten baitu beren arrakastaren arrazoietarikoa bat marketinga dela. Baina berriz esaten dut, hori arrazoi bat besterik ez dela eta talde honek gende askoren gustokoa dela.

) Baina beste gauza batzuetan ez nago Merkader-ekin adoz, bera dioenez, musika nahasia egiten dute eta letraren eta musikaren artean desorekak daudela. Nik horrekin ez nago adoz.

Larrigan & Idiazabal 97: 1

B2



Azken testua.

Iritzi-testuen sarrera egiteko hainbat gauza ikasi duzu dagoeneko. NG-i buruz ENTZUN-erako idatzitakoa berrikusi eta hobetu beharko zenuke.

Helburua: Sekuentzi didaktikoaren ebaluaketa

. Gogoan izan ikasitako hizkuntz baliabideak:

- hasierakoak eta azpiatalak markatzekoak,
- besteak esandakoa -zuzenean zein zeharka- aipatzekoak,
- adostasuna adieraztekoak,
- ezadostasuna agertzekoak,
- iritzia matizatzekoak,

Eman izenburu bat (eta/edo zuzendariari agurra) eta ez ahaztu betiko idatz-arauak: maiuskulak, puntuazioa, ortografia eta gainerakoak.

NEGU GORRIAKEN DESAGERPENA

Urterriak: 23

Zuzendari agurgarri jauna:

Irakurri dut I. Merkaderekin gutuna eta zerba it
esan nahi nuke. Ez dut NEGU GORRIAK taldea
asko entzuten, baina ez zaiekit txarrak iruditzen.

I. Merkaderekin adoz nago esaten duenean,
talde honek jende askoren gustokoa izan arren,
berez arrakastaren beste arrazoiatariko bat
egiztako markatua dela. Baina beste gauza
batzuetan ez nago Merkaderekin adoz. Bera dio,
musika nahasia egiten dutela eta musikaren
arteak desorekak daukela. Nire ustea, haren
musika ez zait nahasia iruditzen eta ez dut
uste desoreka handirik dagoenik. Baina hori nire
eritua baina ez da. Berez, jarraitu atzekaldean behar izan ezker
agurteen naita: